

Carmen Agirre
Legazpi, Gipuzkoa

Aurkibidea

Biografia

Brinkola auzoko Errementari baserrian jaio zen. Elkarrizketan, batez ere, gaztaroko kontuak aipatzen ditu.

Zintak

LGA-017

- **Proiektua:** Aitor Gurrutxagaren fondoa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gurrutxaga, Aitor
- **Data:** 1988-01-01
- **Iraupena:** 5 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Emalea:** Gurrutxaga, Aitor

Pasarteak

1. Brinkolako euskara

- **Erref:** LGA-017/001
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

<p>Brinkolako euskararen ezaugarriei buruz hitz egiten du: inguruko herriekin dituen antzak eta aldeak.</p>

Transkripzioa

Nik zer esango dizut ba, Brínkolako euskérea beste gaiñántzekok bezélaxe berdín-berdíñe; hízketan baiño gehiau éuko do tónun. Oin, Oñatikoa ez, Oñátikoa oso diférentea da, eta Leázpikokin baterez berriz, ez do eukíko. Hemétik hor behin Tolósaldea diférentzi haundíe dauké, baiño hemen góikok ez, hemen Goiérri, Uróla aldékok ez háinbeste, gero beste Ória aldekok Idiázabal, Segúra... horrek bai, dauké gáíñea diférentzie híitzen báztutan´e bai, baiño géhientsu bat tónun... badaukèt eta zea luzégoa píxkatxo bat.

2. Brinkola eta Teilarte

- **Erref:** LGA-017/002
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:01:24. **Bukatu:** 00:03:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

<p>Brinkola eta Teilarte auzoei buruz hitz egiten du.</p>

Transkripzioa

Eskólatik baiño nik uste det áurretik éuko zola, oseake Brínkola ta Tellárteko bi bárriok ba bere esango nuke bere bihúrritasun bat édo holáko zéan bat, eta beti esaten zitzaion Tellériartei "Madríl Txikí" eta Brínkolai "Barrio Txino". Geure bengántzea hori izaten zan, eta gere burrukak eta gere danak ba horren zéan.

Mugea eskolatik; eskolaiño Brínkola eta eskólatik bera Téllarte. Oin arte Agérrezabal, Áiztik, Kórtak, Erráuteik in due Téllarte baiño oin Brinkolako eliza erántsita daré; San Juan zelebratzen zuen. San Juanen mézea jáiero ematen da. Brínkolan zápatu gáuen eta jáien bi mezá emango dittué. Tellárte eta Santá Maríná euko dittu bésta baték; Legázpitik ez da juden, Don Míel juden zan.

3. Anbotoko dama

- **Erref:** LGA-017/003

- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:03:55. **Bukatu:** 00:04:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>Anbotoko damari buruz hitz egiten du: askotan ikusi izan du, baina ez aspaldiko garaietan. Zer kolore zuen, eta non egoten zen azaltzen du.</p>

Transkripzioa

"Han Anbotoko Dámea nun dijon", nik hori Aizkorri parén altxafuégo bat balitz bezélaxe pasatzen askótan ikusi det; oin aspáldiko urte hóetan ez. Gure amándrek esaten zon: "han, Anbotoko dámea": su-kólorea bezélaxe edó izaten zan. Jenéralen Aloña aldetik Aizkorria. Amandrek esaten zon: "han, badatorré Aizkorria. Eon behar do Anboton kueba bat eta hemen bésta bat. Akáteiko kueba". Fenómeno hori nik ikusi det, behin baiño géhiautan..

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com